

## **IRITZIA**

Ane Gui11(5)

## **ERREPORTAIA**

Jostunen  
lanbidea  
gaur egun

# BARREN

1997ko abenduaren 12o  
V. urtea - 218. zkia.

## **IERRETAN**

Elena Alberdi,  
"Amabitxien  
kanpaina"ko kidea

## **KIROLA**

Kiroidegiari buruzko  
inkestaren emaitzak

## **KULTURA**

BARREnek 5  
urteurrena  
ospatuko du  
abenduaren 24an



"Bertutea ez da gauza handiak egitea, gauza txikiak ongi egitea baizik" Montaigne

# Olentzeroren zakua

Olentzerori gutuna idazteko **16** arrazoi



**IRIONDO KIROLAK**  
Forro polarra eta botak

**BAZAR desde 100**  
Gabonetako apaingarriak



**CASCANUECES**  
Egurrezko jarlekua

**ETXABE FERRETERIA**  
Likore jokoak  
(Soinudun kristala)  
4.765 pta.



**KARKIZANO**  
Toaila jokoak  
5.500 pta.



**IKUS OPTIKA**  
Eguzkitako b etaurrekoak  
4.900etik alirrors



%  
%65 ~ 0041111111  
**IOSU BITXIDENDA**  
Lepokoa



**MASSUMTS**  
Jertseak 4.50<sup>o</sup> pta.  
Prakak 4.900 pta.tik



**KIROLAK**  
Kirol moda

**OSTARKU**



Kamara  
2.800 pta.



Poltsa 4.200 pta.



**PINOTXO**  
**ZAPATADENDA**  
Botak 7.300 pta.

**EZENARI11<sup>10</sup>**  
Emakumezko bata  
6.500 ta ●



**PITZEINTXU**  
Konpiementoak



**SKANDALO**  
Barruko erropa

kulero bat opari

4.495 pta.

**YUDEGO**  
**LURRINDENDA**  
Opari ezberdinak



**SARA**  
**JANTZIDENDA**  
Abrigoak



ANE GUILL

# Minek sorturiko mina

**M**ina antipertsonalak aipatzeaz batera, ziur nago bati edo beste-ari Galesko Diana etorriko zaiola burura. "Benetan hunkigarria da minen aurka eta jendearen alde printzesak egindako lan guztia!" esango du norbaitek. Hala ere, gehienok jakingo duzuen bezala, Lady Di ez da mina antipertsonalen aurka aritu den bakarra. Mila gobernuz kanpoko erakunde (ONG) baino gehiago dabilta borroka honetan; hala nola, Intermn, Manos Unidas, Greenpeace, Unicef edo Medicos Sin Fronteras.

Joan den urriaren 10a garaipen eguna izan zen talde hauentzat. 1997ko Bakearen Nobel saria eman zitzaion Minen Debekurako Kampaina Internazionalari (ICBL). Oraindik egiteko asko geratzen den arren, mina antipertsonalek sorturiko minaren aurrean begiak ixten dituzten gobernuentzat astindua izan zen.

110 milioi mina baino gehiago daude 64 herrialde ezberdinetan ereinik eta lehortzeko prest. Mina soro hauetariko gehienak ez daude hesiturik eta batetik bestera mugitzeko askatasuna eragozten dute. Edozein erahil dezakete: haur, agure, neskatila edo gizon. Ez die axola nori ebaiki hankak edo besoak; aberats edo pobre,

ezkondu edo ezkongai. Urtero, 26.000 pertsonak jasaten dute minen eragina. Batzuek betirako mutilaturik geratzen dira, beste batzuek bizia galtzen dute.

Espainiako Estatuan lorturiko lehen garaipena aurtengo otsailaren 25ean izan zen. Diputatuen kongresuan bi puntu hauek onartu ziren:

1- Mina antipertsonalen debeku oso eta orokorra bermatuko duen Akordio Internazionala sustatu eta lortzeko ekintzekin jarraitzea, eta minen garbiketarako jarduera humanitarioak bultzatzea.

2- Mota guztietako mina antipertsonal eta antzerako eragina duten armen, zein beren osagaien fibrikazio, metaketa, merkaturatze, esportazio eta teknologia

transferentziaren debekua, eta gaur egungo stock-aren deuseztapena erregulatuko duen Lege Proiektua igortzea.

Espainiako Gobernuak bi lege hauek aurrera eramaten baditu, aurrerapauso handia izango da. Eta agian, egunen batean, mina antipertsonalak nagusien oroitzen besterik existitzen ez direnean, oraingo mina soroetan loreak edo barazkiak ereingo dira. Hala ere, bitartean, ezin dugu ahaztu oraindik lan handia dagoela egi teko.

"Egunen batean, mina antipertsonalak nagusien oroitzen besterik existitzen ez direnean, oraingo mina soroetan loreak edo barazkiak ereingo dira".

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, herriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
D 74 41 12  
Publizitatea:  
72 74 37 04  
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra  
LAGUNTIAILEA Elgoibarko Udala  
ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso  
ERREDAKZIO KONTSEILUA Andres Alberdi,  
Rosa Agirregabiria  
KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasorte Osoro  
PUBLIZITATEA Miren Moreno  
FIKAKETATZAILEA Mikel Comejo  
ADMINISTRATZIOA Anala Martin  
M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez  
KOLABORATZAILEAK Iñaki Agirreazaldegia,  
Gemma Agirregomezkorta, Iziar Ajuria,  
Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,  
Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito,  
Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,  
Ane Guñlo, Jon Gurrutxaga,  
Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga,  
Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,  
Ongarri Zine Kluba,  
Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe,  
Leire Urkidi, Iban Urizar  
Unai Villena eta Julen Zabaleta  
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.  
TIRADA 4.000 ale  
LEGE GORDAILUA 66-1.038/92  
ISSN 1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



ISSN 1133-021X

W.i.e.f.

ADANOBAT  
MAQUINAS HERRAMIENTA

LI'GOITI  
GRUPO PANOBAT

## BARRENen V. urteurrena

Aurtengo abenduaren 24an BARRENek bost urte beteko ditu. Hori dela eta, datorren ostiraleko alea (abenduaren 19koa) ez dugu egun horretan banatuko, datorren asteazkenean, hilak 23, baizik. Egundun horretan, udal areto nagusian, bosgarren urteurrenerako prestatu dugun erretratu zaharren liburua eta zenbaki berezia aurkeztuko ditugu jendaurrean.

## "Viva España, una, grande y libren"

**F**z da esaldi faxista eta nazkagarri hau entzun edo irakurtzen dugun lehen aldia, tamalez. Garatek eta Oruek ere, besteak beste, makina bat aldiz erakutsi digute esaldi horren atzean daudela, behin eta berriz bere defentsa eginez.

Oraingoan, ordea, pasatu egin dira erreinu espainiarreko PP eta bere alboan, hori bai falta gabe, esertzen diren PNVkoak. Euskal mugimendu independentista mapatik ezabatu nahi dute. Oraingoan Herri Batasunako hogeita hiru mahaikideak izan dira kondenatut (bakea proposatu duen bideo bat zabaltzeagatik). Ez da ahaztu behar JARRAIko bost kideri egingo zaien epaiketa "talde armatuaren ideiak berak edukitzeagatik", bla, bla, bla...

Baina nork jakin, gaur hauek balclira ere, bihar zer gertatuko den. Noren aurka egingo dute HB eta JARRA1 barruan daudenean? Autoinkulpatuen aurka, gazte abertzale-ekertzaile ooren aurka, Gestoren aurka, 'Senideak'en aurka, Elkarriren aurka (hauek ere bideoa zabaldu baitute)...

Hau al da zuen demokrazia? Hau al da proposatzen duzuen bakea?

Kiratsa dario, zuen demokrazia eta zuen bakea errepresioa baita, presoak hurbildu beharrean urrutiratuz, asteburuero gazteak atxilotu eta jipoituz, "Basajaun" bezalako guda-riak erahil eta gero "suizidioa" leporatuz...

Ireki ditzagun begiak. Kontua ez da borroka armatu bat, borroka armatua ez... Euskal Herria, euskaldunak eta etorkizuna baizik. Geuk erabaki behar dugu zer, noiz, nola, zergatik eta zein baldintzatan, eta "alderdi demokratikoe" ez digute horretarako aukerarik ematen, are gehiago, hori gerta ez dadin medio guztiak erabiltzen dituzte: zipaioak, Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak, komunikabideak...

Beraz, abertzale bagara, noizbait aske bizi nahi badugu, egin dezagun aurrera. Bukatzeko, Herri B atasunako Mahaikideekin baita gure bost kideekin ere elkartzuna adierazten dugu, elgoibartar guztiei ekintza hauen aurkako mobilizazioetarako deialdia eginez. Denon artean lortuko dugu!

Gora Euskadi Askatuta!!

Elgoibarko Jarrai

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.



- Herritar batek txalo hau ekarri digu: **"Ikastolako gurasoak txalotu nahi ditut** Gabonzahar egunean **txahala erretzeko ideia benetan polita iruditzen zaidalako.** Ea ikuskizun majoa prestatu eta dena ondo irteten den".
- Herriko lau neskato etorri dira **Haritz Dantzari Taldea txalotzeko.** "Joan den azaroaren 29an Eibarren ederki dantza egin zutelako txalotu nahi ditugu. Txalo bat baita ere, asteazken iluntzean Udai pleno

aretoan egin zuten aurkezpenarengatik".

- Erreminta Makinaren Institutuaren parean egin dituzten etxe berrietan bizi den auzotar batek, **"Kiroldegira doan bidean argiak jarri dituztelako Udala txalotu nahi dut.** Hala ere, Udaletik agindu zuten bezala, bidea txukuntzeko asmoa ba omen dago. Lan hori egin bezain pronto beste txalo bat mereziko du Udalak".

## BAI, ESAN?



**Mikel  
Lizarralde**  
Gurutze Gorrikoa

Aste honetako telefono deia Elgoibarko Gurutze Gorrira luzatu dugu. Gabonak hurreratu direla eta, jostailu bilketa egiten dihardu erakunde honek eta kanpaina honi buruz berba egiteko Mikel Lizarralderekin egon gara.

**- Noiz hasi zineten jostailuak biltzeko kanpainarekin?**

- Probintziako Gurutze Gorriak antolatzen duen jostailuak biltzeko kanpaina aspalditik dago martxan eta duela hiru urte hasi ginen gu. Jendearen erantzuna nolakoa izan zen ikusita, hurrengo urteetan kanpainarekin jarraitzea erabaki genuen. Jostailuak biltzeak, konpontzeak, sailkatzeak, etab.ek lan handia ematen duen anen, merezi duen zerbait dela pentsatzen dugu.


**- Zein da kanpainaren helburua?** - Jostailu berriak edo erabilitakoak bildu. Batzuk egoera kaxkarrean heltzen zaizkigu eta horiek konpondu, txukundu edo osatu egiten ditugu. Badira, hala ere, jostailu oso majoak, esaterako, joko edukatiboak. Gabonetan jostailurik erosterik ez duten familiaren artean banatzeko izaten dira. Errege bezperan egiten da banaketa. Udaletik egoera ekonomiko larrian dauden familiaren zerrenda ematen digute eta hauez gain, badaude guk ezagutzen ditugun beste familia batzuk. Horiei ere banatzen dizkiegu jostailuak. Denera 15 bat familia izango dira.

**- Zein irizpide daukazue jostailuak banatzerako orduan?** - Familia bakoitzarentzat pakete bat egiten dugu. Bertan haur bakoitzarentzat bi edo hiru jostailu jartzen ditugu, beti ere, adina kontuan hartuta. Egokia eta hezigarria den jostailua ematen saiatzen gara.


**Zelan erantzuten du herriak? Nolako jostailuak jasotzen dira?** Normalean erantzuna oso ona izaten da. Bartzuetan jostailuak oso puskatuak egoten dira edo ez dute funtzionatzen. Aprobetxatu ezin direnak zakarrontzira joaten dira eta beste batzuk konpondu egiten ditugu. Kopinen jantziak garbitu, berritu, jostailuei pilak jarri... lan mordoa izaten da. Pena handiena da jendeak ez dituela jostailu berriak ekartzen. Hala ere, oso pozik gaude herritarren erantzunarekin.



*1996ko abenduaren 13an, 56 urte zituela hil zen  
SOTERO ARAKISTAIN AGIRREGABIRIAren oroimenez  
LIRTEURRENEKO MEZA izango da Mendaroko  
Inmaculacla Concepcic5n elizan igandean, hilak 14, eguerdiko 12etan.  
Joaten zaretanoi eskerrak alde z aurretik.*



# Oiholon eto horiaren ortisouok



Rbenduaren 13an Santa Luzia eguna do, jostunen eguna alegia. Egun hori altzaki hartuz jostun asko kalera otera ohi da ospatzera, eta era berezian lgaretzen dute lanbide bereko lagunekin. Badira jostunok gure herrian eta, ospakizunak albo botero utzita, beraien lanbidearen berri jakin nahion hauekako batzuegana zuzendu gara. Pilar Garatek 65 urte bete ditu eta ourten jubilatuta da. Jantzigintza era klasiko batean egiten jardun du urte askoan. "Limoro" enpresako Mari Carmen Garcia, Juli Abod eta Rosa Maria Galarragak lantegietarako eto ostalaritzarako arropak josten dituzte modu industrialago batean. Ana Isabel Marin eta Irune Araujok Diselnu eto Moda ikasketak bukatu berri dituzte.

**D**uela sei edo zazpi bat urte jarri zuten martxan gaur egun Mari Carmen, Juli eta Rosa Mariaren ardurapean dagoen "Limoro" enpresa. Kasualitatez hasi omen ziren, "beste batzuentzat lan egiten genuen, beste era bateko arropa josiz, baina hura ez zen ongi joan eta utzi zutenean guk hartu genuen. Hasieran Juli eta Rosa Mariak ekin zioten eta gero sartu nintzen ni", dio Mari Carmenek.

Lanerako arropa josten dute: arropa zuria ostalaritzarako eta urdina fabriketako langileentzako. Hasieran txandalekin ere ausartu ziren baina oihalak eta materiala erosteaz gain norberak lortu behar zituen bai homitzailea eta baita bezeroak ere eta ideia baztertu egin zuten. Gaur egun ondo moldatzen dira lanean hirurak bakarrik, "noizean behin eman izan diogu norbaiti lantxoren bat etxean egin daitzeko gauza txikiak egiteko, baina ez daukagu asmorik lantokian inor gehia-



go hartzeko. Lana ugari dagoen arren, langile berriak hartzeko orduan aseguru jarri beharra izaten da eta ez dugu arriskatzerik nahi".

Biltegitik oihaal erroiluak ekartzen dizkiete eta beraiek neurri eta mocelelu ezberdinetako patroien arabera moztu ondoren, makinaz josten dute. Gero plantxa industrial batekin lissatu, plastikozko poltsetan sartu eta prest uzten dute dena eskaerak egin dituzten biltegi-tara eramateko. "Hiru biltegierekin

egiten dugu lan eta aparteko beste enkargutxorik ezean, beraientzako soilik aritzen gara. Baina ez da gutxi".

Beraientzako arroparik egiten duten galdetu diegunean ezezko biribila erantzun digute, "aukera badaukagun arren, astean zehar denbora falta zaigu eta asteburuan, oso nekatuta gaudenez, ez dugu gogorik izaten".

Beraien burua ez daukate modistatzat, "etxean, seme-alabek

diote enpresariak garelara, eta hein batean horrela da, txikia izan arren hau enpresa bat baita". Patroien arabera josten dute eta horretarako ez dago modista izan beharrik beraien ustez, "gainera erosoagoa da. Izan ere, ez dituzu arropak frogatu, ez eta hilbanatu behar".

Esan legez, hasiera batean beste batzuentzat egin zuten lan, baina "erosoagoa da norberarentzat lan egitea. Dena den, kontuan hartu behar da beste batzuentzat lanean ari garelara, bilte-



# "Apadrinatukon al zenuke 3. munduko haur bat?"



**M. ANGELES LUCAS**

53 urte, etxeoandrea

Dirua edukiz gero, bai. Senarra hil berri zait, baina lehenago etxean hitz egin genuen alabekin gai honi buruz eta ahal izanez gero, gustatuko litzaiguke.



**JUAN RAMON AGIRREGOMEZKORTA**

35 urte, administraria

Ez dot pentsau. Gainera gauza berrixa da eta oindiokan ez dou ikusi horrek funtzionatzen daban, benetan ailegutzen jakuen dirua ala ez.



**PORFIRIO ALONSO**

65 urte, jubilatua

Nik jubilazio kaxkarra daukat, minimoa. Ahal dudaneurrian laguntzen dut, eliza aurman eta kalean dauden eskaleei dirua emanez, baina hortik aurrera ezinezkoa zait.



**PILAR OSORO**

56 urte, etxeoandrea

Apadrinazio kanpainan laguntzen dot jendiak apadrinazivak ein daixen. Nik eingo neuke, baina beste gauza askotan laguntzen dot eta danera ezin leike heldu.



**JUAN RUIZ**

51 urte, mekanikoa

Ez dot sekula pentsau. Bestela ere nahikua gastu dakagu. Hiru seme-alaba dazkat etxian eta oin eurekin pentsatziakin nahikua lan dakat.



**SAIOA BLANCO**

18 urte, ikaslea

Asmua badakat. Amakin berba ein dot eta ume bat hartzekotan gaoz. Ume hoiek bizi dian egoera ikusitxa ilusiva eitxen dau pixkat laguntziak.

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

**IOSU**  
bitxidenda


1.000 pta.ko erosketarengatik Gabonetarako eta Erregetarako loteria oparituko dizugu.

**APROBETXA EZAZU GABONETAKO OPARIA EROSTEKO!**

San Bartolome, 4 Tel: 74 40 48



# KA EAN EZ EGIN "KALF"



Ez bota kalean etxean botatzen ez duzuna

## ELGOIBAR: GERO ETA GARBIAGO



F.I.GOTESARKO 1 DALA



DEBABEHEKOI IVIOVINTATFA



GIPI LK05110 YIRI ALDIL NDIA

• **Lanuzterako deia egin du HBk**

Elgoibarko HBk hilaren 13an Bilbon izango den manifestaziorako deia luzatu du. Era berean, hilaren 15ean, astelehena, baikoitzak bere lanpostuan bi orduko lanuztea egiteko eskatu nahi du, "HBren Mahai Nazionala gartzelan sartzea elkarriketaren alde gauden guztion kontrako eraso larria baita". Alderdi honen arabera, Estatuko eta atzerriko hainbat erakunderen elkartasuna jaso du HBk. Zentzu honetan, "aipatzekoa da Durangoko azokan euskal editoreek egin zuten protesta". HBren ustez, "bakea, demokrazia, askatasuna eta elkarriketa bezalako hitzek, euskal gehiengoarentzat, Espainiaren ezarpen historikoaren eta honen ondorioz sortutako enfrentamenduaren konponbidea sujeritzen dute". Azken urteotan, presoen egoerak "txarrera egin du" HBren iritziz. "Euskal gizartearen gehiengoak eskatzen duen bezala, euskal preso guztiek Euskal Herrian egon beharko lukete". Hilaren 13ko manifestaziorako autobusa irtengo da arratsaldeko 15:45ean Plaza Handitik. Izena Iehenbailehen ematea komeni da.

• **Seiloen prezio igoera**

Urtarriletik aurrera herri barruan eskutiz bat bidaltzea 14 pta. garestiagoa izango da, Correos-ek herri barruan postaz bidaltzeko eskutizetan jarri behar diren seiluak 21 pta.tik 35era igo ditu. Urte hasierarekin, prezio igoera.

**Haritz Dantzari Taldeak 25 urteurreneko ospakizunen aurkezpena egin du**

**1998rako egitarau zabalak prestatu dute**

**H**aritz Dantzari Taldeak, sortu zenetik, 25 urte beteko ditu 1998an. Urtemugak merezi duen oihartzuna izan dezan, datorren urte osoan ekitaldi mordoak egingo ditu Haritzek herriko kolektiboekin elkarlanean. Asteazken iluntzean, Jose Inazio Sarasua Haritz Taldeko zuzendariak, udal ordezkari eta herriko kolektibotako ordezkariekin batera, egitarauaren nondik-norakoak azaldu zituen.

Udal Euskara Batzordeak Gabonetan kaleratzen duen egutegiaren azalean, Haritzek dantzatutako soka-dantzako argazkia joango da aurten; Ramon Ortegarrena, hain zuzen. 1998. urtea Filatelia Elkartek egiten

duen seilu erakusketarekin hasiko da eta erakusketaren gaia Haritzen urteurrena izango da. Karnabaletan, Mauxitxa txarangarekin batera, Luzaideko ihauterien kalejira egingo dute Haritzekoek erropa tradizionalekin jantzita. Martxoan, Txistularien Elkartea lehen aldiz Elgoibarren bilduko da urteko batzar orokorra egiteko. Maiatzean, dantza garaikide ikuskizuna, eta Galiziar Etxeak antolatzen duen jaien barruan, dantza jaialdia izango dira. Trinitateetarako, haurren tanborrada eta erraldoi eta buruhandien konpartsa antolatu dira. San Juan bezperan, "Dantza eta Sua" ikuskizuna egingo da Plaza Handian. Aipagarria da Pedro Sodupe "Gelatxo"ri uztailean egingo zaion omenaldia. Honez, gain, hiru argazki erakusketa prestatu dituzte Haritz Dantzari Taldearen inguruan eta San Bartolome jaietan duela 25 urteko dantzariak eta gaur egunekoek soka-dantza eskainiko dute. Irailetik abendura bitartean beste ekitaldi mordoak egingo da. Azkenik, 1999an, Haritzen 25. urteurrenaren inguruko liburua argitaratzeko asmoa dago.



**Korneev errusiarrak irabazi du Nazioarteko Xake Txapelketa**

**Z**ubi-Ondo Elkartekoak, **Xake** Federaziokoak eta Udal Kirol Patronatuko arduradunak pozik daude Nazioarteko Xake Txapelketak izan duen harrerarengatik. Aurten inoiz baino oihartzun zabalagoa izan du txapelketak komunikabideetan eta ikusle kopuruari dagokionean ere, gauza bera esan daiteke.

Parte hartu duten 10 jokalariren artean, **Giorgi Giorgazde** eta **Oleg Korneev** ziren txapeldun gaiak baina, azkenean, Korneev-ek irabazi zuen. Giorgazde, berriz, txapeldunorde geratu zen. Ezusterik handiena **Paco Vallejo** 15 urteko espai-

niar gaztea, hirugarren postuan sailkatu zela izan zen.

Sari banaketa ekitaldia joan den ostegun iluntzean egin zen Kutur Etxeko hitzaldi gelan. Bertan Nazioarteko Xake Txapelketako

eta Eskolarteko Xake Txapelketako sariak banatu ziren **Gillermo Garate** alkateta, eta **Migel Angel Muelas**, Euskadiko Xake Federazioko lehendakariaren partaidetzarekin.



## 80 urtekoei eta urrezko eztaiak egin dituztenei omenaldia

Jubilatu Etxeak antolatutako Jubilatuen Astearen barruan, 80 urtetik gorako elgoibartarrak eta aurten urrezko eztaiak egin dituzten bikoteak onendu zituzten pasa den ostiralean. Jose Odria eta Teodora Aranzabal eta Jose Ramon Arozena eta Geneveva Anieta ezkon-emazteak izan ziren omendutakoak. Ekitaldian parte hartu zuten Guillermo Garate alkateak, Ricardo Astigarraga Caja Laboral-Euskadiko Kutxako zuzendariak eta Belen Elorza zinegotziak. Omenaldiaren ostean bazkaria eta dantzaldia izan zuten Jubilatuetan. Guztira 120 lagun elkartu ziren bazkarian; hauetatik 85 bat 80 urtetik gorako jubilatuak ziren eta gainerakoak, agintariak, Jubilatuetan zuzendaritzakoak eta katekistak. Azken hauei eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiete Jubilatuetan zuzendaritzakoek bazkaria zerbitzen fin-fin aritu zirelako.



### 103 urte!

Maria de los Bueis elgoibartarrak 103 urte ditu. Jubilatuetan omenaditxo bat egin zioten joan den ostiralean, bera baita Elgoibarko pertsonarik edadetuena. Lore sorta ederra eramane zioten etxera eta pozik hartu zuen Mariak oparia. Emakume hau Palencian jaio zen arren, 75 urte daramatza Elgoibarren. Datorren urtarrilaren 24an I 04 urte beteko ditu Mariak. Zorionak!

- **Gabonetako aldizkaria kaleratu du Kontsumo Bulegoak**

Udal Kontsumo Bulegoak "Kontsumo" izeneko aldizkaria banatu du herriko etxe guztietan. Zenbaki hau Gabonei buruzkoa da eta Gabonetan egiten diren erosketen inguruan hainbat aholku ematen ditu. Honez gain, pentsio planak eta multijabetzako eskaintzak ere aztertzen ditu.

- **85 urtetik gorakoentzako Gabonetako programa**

Udal Ongizate Sailetik aditzera eman dutenez, 65 urtetik gorako pertsonentzat, Gabonak pasatzeko programa berezia antolatu da. Bakarrik bizi edo bakardadean dauden bikote eta norbanakoei zuzenduta dago kanpaina. Programaren barruan bi eguneko egonaldia sartzen da, abenduaren 24a eta 25a, hain zuzen, Donostiako Orly hoteleam Norbere herritik Donostiara bitarteko joan-etorriak autobusez, Gabon eguneko afaria eta dantzaldia, Eguberri eguneko gosaria eta bazkaria sartzen dira prezioaren baretan. Izena emateko Eibarko Zaharren Egoitzara zuzendu hilaren 18a baino lehen. Zehaztasunik behar izanez gero, Udal Ongizate Sailera deitu (70 10 08).

- **Murkaikupe Esku Pilota Txapelketa**

San Migel auzoko "Murkaikupe" binakako esku pilota txapelketa jokatzeko ari da. Hasiara azaroaren lehen izan zen eta azken partidua hilaren 21ean izango da. Lehen mailako 8 bikote eta bigarren mailako 10 ari dira parte hartzen, tartean Elgoibarkoak eta Mendarokoak.



### Agur Alkortari

Asteazken goizean hasi ziren eskabadorak Madalan kokatuta dagoen Alkortako lantegia botatzen. Atzeko aldetik hasi ziren eraisketa lanak eta ondoren, aurreko parteko eraikinak bota zituzten. Eraisketa lanak direla eta, Madalako zonaldea hesiz inguratu zuten. Eraikinak bota ondoren geratuko diren lurretan etxebizitza berriak eraikitzeko plana dago.

# Elgoibarko PP osts 111/E itxieren ordutegi berriann **LIE E/EaI**

Udalean Ingurugiroaren aldeko Batzordea sortzearen aldekoa da

**J**uan Carlos Abian, PPko zinegotziak jakitera eman duenez, ez dago ados urrian Eusko Jaurlaritzak tabernen itxieraren ordutegiari buruz onartu zuen dekretuarekin. Abianen iritziz, "aipatu dekretuak ez du dagoen arazoa konponduko. Gure ustez, auzokideak zaratez kezkatzen direnean edo tabemetako bezeroek behar bezala jotkatzen ez dutenean, herri bakoitzak ezarri beharko du dagokion isuna. Ez da, ia sekula ere, hosteleroen errua izaten". Hori dela eta, Juan Carlos Abianen alderdiak dekretuaren kontrako jarraera agertu du, "gure ustez, honekin Iortuko den gauza bakarra, ostalaritza sektoreko diru sarrerak jaistea izango da, Kontuan izan behar da, sektore honetan 40.000 pertsona daudela lanean Euskal Herrian eta, gehienetan, ostalaritzako langileek legea bete egin izan dute". Juan Carlos Abianek hurrengo plenoan mozioa aurkeztuko du, "Eusko Jaurlaritzako Bame Sailak dekretu be-

rria atzera bota eta 1988tik zegoen araudia mantentzea" eskatuz.

### Ingurugiroaren aldeko Batzordea

Bestalde, PPko zinegotzia Elgoibarko Udalean Kontseilu Berdea izeneko lantaldea osatzearen alde agertu da. Izan ere, Juan Carlosen ustez, "gaur egun gero eta gehiago dira ingurugiroaz kezkatzen direnak. Hori dela eta, ingurugiroa zaintzea ez da Administrazio Publikoari soilik dagokion zeregina. Gure iritziz, herritarrek ere inplikatu behar dute, eta ekintzak antolatu edo erabakiak hartzeko orduan, kulturalak, urbanistikoak, politikoak edo kirolaren ingurukoak, Udalak kontuan izan behar du ingurugiroa". PPkoak "kultura ekologikoa" sortu nahi du eta



Ostalaritzaren dekretuaren aurka dago Juan Carlos Abian, PPko zinegotzia.

horretarako Kontseilu Berdea osatzea proposatzen du, "herritar guztiek hartuko luketelarik parte. Kontseiluak izaera kontsultiboa izango luke eta Udaleko Hirigintza sailak eta herrian ingurugiroaren arloan lan egiten duten elkarte, erakunde eta bestelako taldeek osatuko lukete".

## Kultur Etxe inguruko lurak erosi ditu Udalak

Elgoibarko Udala, Kultur Etxearen atzeko aldean dauden hondaturiko etxeen jabeekin alcordio batera iritsi da. Ondorioz, Udalak aipatu etxeak kokatzen diren lurak erosi ditu 9,7 m<sup>2</sup> lioiren truke.

Honi esker, atirrera begira aipaturiko eraikuntzak (Betelu aroztegia, Iberduero eta abar) bota egingo dira eta lur erernu

horretan zabor, beira eta paper kontenedorak jarriko dira, besteak beste. Nolanahi ere, iapaturiko ingurua garbitu eta txukundu eta Deba ibaira ibilgailuentzako sarbideren bat eraiki nahi da.

Eraikuntzak botatzeko, Elgoibarko Udala Eusko Jaurlaritzak kasu horietarako ematen dituen dirulaguntzak jasotzen saiatuko da.



**PINTURAK**  
 PEDRO PEREZ BERISTAIN  
 San Roke, 30 behea. 74 36 52 - 74 27  
 KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.**  
 13Z.14/1, e4a aiTiVaUdally  
 01,44, li041 ~ 44-  
 114/ ~.t. 44'60%.124464  
 Urasandi, 12 behea  
 Tel-Faxa: 74 04 89

# Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 39, GEHIGARRIA



abonak BARREnera ere iritsi dira. Argazkian, Herri Eskolako ikasleak ikus ditzakegu abenduaren 23an urtero egiten duten kalejira ospatzen. Orain arte Urasandin bakarrik ibili

izan diren arren, aurten herriko kaleetan ere ikusi ahal izango ditugu.

Lerro hauen 1:Ddez, Herri Eskolak herritar guztiei Gabon Zoriontsuak opatu eta Urte Berriari osasuna, lana eta bakea eskatzearekin bat, honako bertsoa ere luzatu digute:

"Abendura heldu gara  
Gabonak badatoz,  
Olentzero hartuta  
abeslari gatoz.  
iira eta biraka  
benetako asmoz  
Hogeita hiruan denok  
gurekin ba. Zatoz!"

## e:teea

Sukaldera, sartu eta amak hozkailu ondoan aurkitzen du Jaimito; mutikoa geldi-geldi dago, zeharo liluratuta.

—Zertan ari zara, Jaimito?

—Tentazioaren kontra borrokan, ama.



# Jakitunen eskutik

## Kontsumoa... kontsumismoa?

**E**ta zergatik Eguberrietan gai hau? Beharbada... Gabonetan gehiago erosten delako, publizitatea ugariagoa delako... Ez al da izango, bizitzaz gozatzeko ueña iristen denean, norbaitek zerbait serio, arduratsu edo triste, beti gogoratu behar digulako gure erru sentimenduari heldu eta gure kontzientziak Isasitzeko sufriarazten gaituen zerbait egin dezagun?

Ba, ni ez naiz hori izango. Gabonak jaiak dira. Oporrak dituenak goza ditzala, lagunartea eta familiartea maite dituenak disfruta ditzala, mendia atsegin duena doala mendira eta epelago egoteko gogoia duena doala Kanarietara. Izan ere, gozatzeko uneoren ondoren lanerako sasoi nagusitzen da, seriotasun eta arduren garaiak iristen dira eta orduan gogor, tinko eta serio aritzen gara.

Eta kontsumoaz zer?... Beno, ba bai, kontsumismoa aipatzen denean gehiegikeria bat adierazi nahi da, behar baino gehiago gastatzea, erostea edo aprobetxatzen denerako baliabide gehiegi erabiltzea.

Bai, baina hori urte guztian gertatzen da. Hau idazteko orduan, moda bururatzen zait. Jantzera urtez urte aldatu behar eta ezin horiek, kirol janzkeren teknologia berrien olatuak, neska-mutilen marka lehentasunak, etiketak kanpoan,... baina nork ez du "bere estilora", egoki, ondo edo atsegin egon nahi?

Autoak bururatzen zaizkit, zenbat erregai alferrik gastatzen dugun, pertsona bakarreko auto bat mugituz, milaka eta milaka aldiz egunean,... baina... norentzat ari dira ba, gure industriak lanean?

Kontsumo gizarteak lanpostu pila bat

sortu zituen, serieko fabrikazioak ondasun pila bat merketu zituen...bestela, nola erosi garbigailu bana (hori ere kolektiboa izan daiteke), hozkailu bana, telebista, bideo, musika-katea, baxera-garbigailu edo ilelehorgailu bana?


Eskoletako testuliburuak ere ez zaizkit burutik erraz joaten. Euskarazko liburuak ditugu gaur egun, ondo egindako liburuak, liburu politikak, baina... zer arraiogatik izan behar dute behin bakarrik erabiltzeko liburuak? Noski, liburugintzan ere lanpostu asko dago...

Erreziklaia ere iritsi da... baina... kontsumoa jaisteko?

Orduan Eguberrietan gertatzen den bakarra da jende askok gehiago kobratzen duela eta ohitura dagoela zenbait gastu estra egiteko, eta saltzaileek aukera horri heldu nahi diotela. Baina jendea elkartu egin ohi da sasoi honetan eta janari-edaritan gehiago gastatzen du lagunartea goxoagoa egingo zaigun ilusioareldn, eta norberak maite ditueni opariak egin nahi izaten zaizkie

eta, egia da, denek denetik daukate askotan (norbere ingurukoak norbere tamainukoak izaten dira eta), behin opari bat egitekotan, norbere posibilitateen arabera, ezin ba opari eskasik egin... eta... denek (norbere moduko denek) opariren bat jasotzen badute... zer arrazonamenduren izenean geratuko naiz oparirik egin gabe, nori eta hainbeste maite nauten

Beste kontu bat da beste zerbaitetan gastatu nahi izatea... baina horri "balore aldaketa" deitzen zaio (ez "kontsumismoa"), eta beste batean besteren batek jorra dezakeen arloa da.



ALFONSO GUILLO  
IKASTOLAKO ZUZENDARIA

## Zer iritzi daukazu ..... ei buruz?



04v 0,daak 14.a 4'4e t"W'44414, el~a" 424-elet q/4.e4A,  
~14elako omq(4,Dak ekU&K tU14~ O.

ELIXABET ZABALA, 8 urte



041) pata(4,1, Fam.v1,Ua kutU(44,444NAmte, tam,e

E&:4%a 41,U61141 4vUe t(44

.4 44 4304

AMAGOIA GALLEG0, 13 urte.



asp 0,aUlak 44. v+lo payki ' 11.4 gaik4 ~ 40 UU/K

Uteta"alt e/h/1/yae/1"v. Jou" 14,,o11,a, v40(44" 14.

SONIA MARIA MENDOZA, 11 urte

kkkk~kk kkkkkkk&it\ing, k9A1V



de CASTLC

8 urte

- 1-Ez, baina gustatuko litzaidake Spice Girls taldea imitatzea.
- 2-Barbie eta Ginger eukitzia.
- 3-Erregeak. Gailetak eta ardoa Idgatzen dizkiet.
- 4-Bai, akordatzen naizenean.
- 5-Txabola baten barruan.
- 6-Hizkuntza irakaslea.
- 7-Bainua.
- 8-Ezer ere ez.

## Galde debalde

- 1- Ba al dakizu norbait imitaten?
- 2- Zein da zure ilusia?
- 3- Zure etxera Olentzero ala Erregeak iristen dira?
- 4- Idazten al duzu "diario"rik?
- 5- Non gordeko zenuke altxor bat?
- 6- Zer izan nahi duzu haunditan?
- 7- Dutxa ala bainua?
- 8- Zer aldatuko zenuke zure iruditik?



LG0117

LIDIDLIGUE7

11 urte

- 1-Ez baina gustatuko jatan Sergio Dalma imitatzia.
- 2-Munduan zihar bihurtzia.
- 3-Bixak.
- 4-Bai. Gordeta dakat inork ere ez irakurtzeko.
- 5-Lur azpitan gorde eta plano bat ingo nuke.
- 6-Futbolista. Bartzelonan jokatzeko, famosua izan, dirua irabazi eta ligatzeko.
- 7-Dutxia.
- 8-Ezer ez.

## Nor da *La Petite Te<sup>no</sup>*?

INAKI OVIEJLLO 14 1.32TIL



Menditik datorren gizon potoloa. Zakua Tamagotchiz eta konsolaz beteta dauka. Nire aitona da.

XAIDWIL) ELCUZA 9 urte



Olentzero baserritar atsegina da, edo aizkolari bat.

ULTA FELICATXIZ 14 1.3VT



Jende guztia, haur gazte nahiz nagusi, erregaloeekin zoriontsu izatea nahi duen gizona.

ESJAUT IZAGILLE G urte



Olentzero gizon bat da. Sinpatikoa da erregalo asko ekartzen digulako.

AIOR GCSIZALL7 9 1.MIL



Elgoibarko errege bat bezalakoa da, opariak ekartzen dituena.

AtIKEL. TADLO G urte




Baserritar mota da eta mendian bizi da. Diru gutxi dauka eta Gabonetan herrira jaisten da traktorearekin.

Erantzunak: 1- Donuts-a, 2- Zer eskatuko zenioke Olentzerori elgoibartarrentzat?, 3- Herria, Sabela 4- Etengailua, kitarra, liburua.

puanp ualsorJ!  
 acio6 LIDS9 11Z411-1  
 oiap JeZ 040 Diep JOZ —


un6oi op za  
 olaziun6oi uazio4uol ouioci  
 )llin4uol piop za  
 o6op zors  
 )lls.inq orop orecios —

Dp Ze 111101Z0 OSO  
 herlp za uazpa6!  
 op ounp 191  
 Dp o!ftio




'DUITIZInDUISII **4.**

oewa q n6np pinp! Je **3.**



ouold o)orpi  
 9.110 0.19 0)10Z4JOLI D.24oci  
 npow aisa lozno6  
 ouozi ox!Lia6 aJown  
 ala oxilog  
 outog **9.110 ZajOg ij**

**apn**  
**119**



"Bokeda eta maitasuna"

**7 urte**  
**BORJA MALLO**



O<sup>6</sup>e!P niaPiD<sup>6</sup>.1<sup>9</sup>Z **2.**

i,nng ap aez **1.**

**ilip3111513 ZIOZO 113113d13.10CIUGG**

SO

SO

rel



Egunotan bolo-bolo dabil-tza bazter guztietan haur-ralc apadrinatzeke programa-k. Izan ere, Estatu mailako telebista kate batek 24 orduko saio berezia egin du 3. munduko ahalik eta haur gehien apadrinatzeke helburuarekin. **Halere, hain urruti joan gabe, 1997ko apirilean Xabi Gomez-ek, gaur egun Eskoriatzan parroko dagoen apaizak, Elgoibarko Parrokiako Misio Taldean martxan jarri zuen "Amabitxien kanpaina" deiturikoa. Orduetik hona 9 haur hartu dituzte besoetan herriarrek eta egitear dago beste 8rentzat eskaera. Solidaritatea hizki handitan idazten den garaia bizi dugu eta kasu honetan, urteko 20.000 pta. ordainduz, hirugarren munduko haur batek urte osoko hezkuntza jaso dezake. Honi buruz hitz egiteko gure arteran ekarri dugu Elena Alberdi, Misio Taldeko kidea.**

## "Amabitxien kanpainarekin hezkuntza jasolzen dute 3. munduko umeeak"

—**Nola jarri zen martxan Elgoibarren "Amabitxien kanpaina"?**

- Xabi Gomez idea izan zan. Pertsona bat hiltzen darian familixiak jasotzen daban dirua batzuetan misiuetarako ematen dau. Xabik proposau zaban diru hori hirugarren munduko umiei laguntzeko ematia. Eta hola hasi ginan apirilian.

—**Zenbat eskaera egin dira?**

- Momentuz 9 daude inda eta beste 8 eitzeko. Gustora gaude ze, egixa esan, ixa elizan bakarrik banatu dou propagandia eta poliki-poliki, gero eta jende gehixok daka honen berri. Gainera, telebisivan ere holako gauzak esatia inportantia da.

—**Ze kostu suposatzen du haur-besoetako bat egiteak?**

- Urteko 20.000 pezeta. Bakoitzak erabakitzen dau dana batera ematia nahi daban edo poliki-poliki, hilian hainbeste. Printzipioz urtebeteko luzapena daka eta bakoitzak erabakitzen dau segitzia nahi daban ala ez.

—**20.000 pezeta horiek zertarako dira?**

- Ume batek urte oso bateko edukaziva jasotzeko bihar daban dirua da. Umiak monjekin bizi dia eta jatekua badake. Hemendik ikasteko laguntza jasotzen debe.

—**Gainera, umearen argazkia ere jasotzen da, ezta?**

- Bai, hala da. Ume ba-

ten amabitxi egiterakuan fotografixa bat ematen da eta fitxa bat umian datu guztiekin: ze izen dakan, noiz jaio zan, nun bizi dan, bere gurasuak zeintzuk dian, ze estudixo dakan, ze tipotako etxian bizi dan... Aukeria dakazu berakin harremanet a.n j artzeko nahi izan ezkeru.

—**Zein adinetako haurrak dira?**

- 18 urtera bitxarte-kuak.

—**Jendea oso sentsibilizatu al dago gauza hantekin?**

- Bai. Umiak izaterakuan beti deitzen dau atentziva eta jendia asko solidarizatzen da, nahiz eta elizatik kanpoko jendia izan. "Mercadeco" dendiakin ere gauza berdina pasatzen da. Jun zan urtian zabaldu gendun Ielengo aldiz eta jendiak oso ondo erantzun zaban. Nola edo hala, laguntza emateko intentziva euki-tzen dau jendiak eta holako gauzak interesantiak izaten dia.

—**Zer egin behar da ume baten amabitxi egiteko?**

- Parrokiako Misio Taldera jun bihar da edo, bestela, Begoña Mugerza edo neri galdetuta ere euki dezake informaziva. Gauza bat garbi Iaga nahi dot, guri ematen diguten dirua ailegatzen dala umiena. Hori seguru euki bihar da, ze jende askok eukitzen dau kezka dirua nora jungo ote dan. Guk gauzak ondo eitxen douz eta zertifikalrike bene-benetan ailegatzen dala.

### EESTEEK ESANA

"Misio Taldean erabat bolkatuta dago. Oso sentsibilizatuta dago kanpainarekin".  
BEGOÑA GABILONDO, Misio Taldeko lankidea

Iffir

ELENA ALBERDI



# OSKORRI

## MARIJANE KANTA ZAN!

### ELGOIBAR

Abenduak 21, igandea, 18 : 0 Oetan **KIROLDEGIAN**

**SARRERAK**

Haurrak (14 urtetik behera): □. **500** pta.

Nagusiak (15 urtetik gora): □ **800** pta.



ANTOLATZAILEAK:

Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Udala

Sarrerak aurrez eskura daitezke Elgoibarko izarran (Ubitarte 4, behea) edo Kultur Etxean, abenduaren 15etik 19ra.



**A**

argazki hau benetan zaharra da, 1930. urteko San Bartolome eguneko alegia. Oraingoan ez dago aurpegiak asmatzen lanik hartu beharrik baina argazki honek badauka interes historikoa. Begira zein beteta dagoen Plaza Handia pilota partidu bat jokatzen ari diren

bitartean. **Jose Oteizak** ekarri digu erretratua eta bere esanen arabera, egun horretan **Tolosako Gastezi** eta **Murua La** el-


goibartarrak 22 eta 15 irabazi zioten **Uria** eta **Atano IV.** a azkoitiar bikoteari. Epaila lanetan **Jose Rezola**, **Gerardo Arriola** eta **Ramon Ezenarro** aritu ziren. Korredoreak edo apustuez arduratzen zirenak bi ziren. Baten izenaz ez da gogoratzen baina bestea **Manuel Zubiaurre** zen.

Badauka erretratu honek beste detaile interesgarririk. Txankakua zubiaren hasieran, argazkiaren eskuma aldean, "Cal la Amistad" tabernaren Ietreroa eta toldoak ikus daitezke. Txankakua zubiaz bestalde, berriz, "Cafe" la Amistad" dagoen etxearen atzean, Salbatorearen ermita dago. Erdizka baino ez da ikusten baina argazkiak merezi zuela pentsatu dugu.



### I. URTEURRENA

*1996ko abenduaren 21ean, 75 urte zituela hil zen AGUSTIN SANCHEZ ETXABURUren orohenez URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan zapatuan, hilak 20, arratsaldeko 7etan. Joaten zaretenoi eskerrak alde z aurretik.*



## Cordon, Vilarchao, c.b. IDEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO SARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

- Kontabilitate

- Lan

Fiskal

ITT ERCOS ASEGURUAK



Kalamua, 12  
EIGOIBAR  
Tel-Faxa:  
74 1 8 91

AHOLKULARITZA

## • Bi sari jasoko ditu Josu Merinok

Josu Merino eskalatzaile elgoibartarrak bi sari jasoko ditu, bata Espainiako Mendizale Federazioaren "Gala"n emango diotena eta bestea, urtarrilaren 16an Gasteizen izango den Euskal Mendizale Federazioaren "Gala"n jasoko duena. Aurtengo euskal mendizale onena izendatu du Euskal Federazioak. Asteburuan, Madriden izango da Espainiako Federazioak emango dion 200.000 pta.ko "Peltz" saria jasotzeko.



## • Patxi Arriola Espainiako Ehiza Xeheko txapelketarako sailkatu da

Patxi Arriolak Espainiako Ehiza Xeheko finala jokatuko du pasa den zapatuan Valentzian izandako finalerdian bigarren geratu baitzen. Finala Toledon jokatuko da abenduaren 20an. Patxik lehen aldiz lortu du finalerako sailkatzea modalitate honetan.

## Mai Kirol Elkarteko taekwondo irakasleak 3. dana atera du

**Josune** Altuna eibartarrak, Ibai Kirol Elkarteko taekwondoko irakasleak, gerriko beltzeko 3. dana atera du espezialitate honetan. Horrela, bada, Gipuzkoan gerriko hori duen emakume bakarra da, eta baita probintziako emakumezko irakasle titulu bakarra ere.

Bestalde, joan den hilaren 29an, Donostiako Egiako Kiroldegian jokatutako Taekwondoko Gipuzkoako txapelketan, Ibai Kirol Elkarteko ikaslea den Pablo Alberdi Gipuzkoako txapeldunordea izan zen senioar mailan. Pablo ez zen bere mailarik gorenean egon bizka-



*Josune Altuna irakaslea eta Pablo Alberdi Gipuzkoako taekwondo txapeldunordea.*

rreko Iesio bat zuelako, baina ahalegin guztiak egin zituen eta zilarrezko domina jaso zuen podiumean.

# LEHIAKETA

## Juan Mugerza Nazioarteko Krosaren LV. edizioa

Joan den asteko gaideren erantzunak hauek dira:

a) Jon Brown,, b) Urtarrilaren 4an, c) 1988an

Aste honetako irabazlea **ANA ETXANIZ** izan da eta, beraz, kroserako bi sarrera irabazi ditu. Gogoratu hiru asteetako irabazleen artean Softlanek emandako **INTERNETERAKO URTEBETERAKO KONEXIOA** eta **MODEMa** zozketatuko ditugula.

**Aurten Internaten krosari buruzko berri guztiak** (historia, palmaresa, baita Elgoibarko informazioa ere...)

**SAR ZAITEZ KROSAREN SAREETAN!**

**Internateko heibidea:** <http://www.softlan.com/cross-muguerza>

**Posta elektronikoa:** [egotoki@softlan.com](mailto:egotoki@softlan.com)



### ASTE HONETAKO GALDERAK:

1- Zein urtetan jaio zen Juan Mugerza?

a) 1960

b) 1900

c) 1850

2- Zein urtetan hartu zuten parte Juan Mugerzak joko olimpikoetan?

a) 1920

b) 1961

c) 1895

3- Nor izan zen krosa irabazi zuen azken korrikalari portugaldarra?

a) Wilson Onwoyo

b) Ricardo Sapinto

c) Paulo Guerra

**Erantzunak zein diren baldin badakizu, ekarri txartelak BARRERA asteartea baino lehen.**

Izen abizenak: ..... Tel: .....

# Kiroldegiko inkestaren emaitzak kaleratu ditu Patronatuak

Ekonomi arloan, 12 milioiko irabaziak izan ditu

*Garbitasunean, Kiroldegiko langdegoaren tratuan, kirol eskaintzan, instalakuntzen egoeran eta prezioetan igarri dute 146 inkestatuek hobekuntzarik handiena. Ordena honetan baloratu dute Kiroldegiko erabiltzaileek 1996tik 1997ra bitarteko gestioa, hau da, Kiroldegia Udalaren eskuetara pasatu den epeko gestioa.*

Inkesta Udalaren eskariz egin da eta Gestio Eskolako Andres Valenziaga eibartarra izan da Kiroldegiko 146 erabiltzaileen artean galdeketa egiten aritu dena. Jose Mari Ulazia Gestio Eskolako zuzendariak joan den asteartean egindako aurkezpenean azaldu bezala, "kalitatearen europar eredia erabili da Kiroldegiaren gestioa nolakoa den aztertzeke. Lehen urratsa bezeroen satisfazio maila jakitea izaten da eta horretarako datuak eskuratu ditugu inkestaren bidez. Sei hilabete edo urtebete harri beste inkesta bat egiten bada, gestioa bide honetik doan ala ez jakin-godu".

Inkestaren datuen arabera, Kiroldegiko erabiltzaileen %85ak hobekuntza igarri du Kiroldegiaren gestioa Udalaren eskuetan dagoenetik. Ramon Mujikaren iritziz, "erronka nagusia arlo guztiak hobetzen saiatzea bada ere, garbitasuna izaten da gehien landu beharreko arloa". Kexak eta kritikak ere egon dira. 50 bat sujeren-tzia jaso dira, batez ere kantzaren eta teiltuaren egoerari buruzkoak. Oti 4ra bitarteko puntuazio eskalan 2,65eko kalifikazioa ja-

so du Kiroldegiak. Alkateak esan bezala, "benetan poztekoak dira datuok".

## Kantxa eta teiltuaren konponketa

Urtarrilean frontoiko edo kantxako hormak pintatzen eta zolu berria jartzen hasiko dira. Lurrean jarriko den pabimentu berria saskibaloian, areto futbolekoan, eskubaloian bai eta tenisean ere jokatzeko erabat aproposa da. Teiltuari dagokionean, oraindik aztertzeke dago teiltatu osoa berria jarriko den ala dagoena konponduko duten. Bi hobekuntzak egiteko 14 milioi gastatuko dira.

## 12 milioiko irabaziak

Konponketa hauek egiteko orduan, erabakiorra izan da aurten 12 milioiko irabaziak izan dituela Patronatuak. Gestio ekonomiko positibo horretan zerikusia izan du azken urteko gorakadak bi arlotan: abonatuaren igoeran eta ikastaroak egiten aritu diren pertsonen igoeran. Urtebetean 400 abonatu gehiago lortu dira (1.716 guztira); kirol jarduerari dagokienez, 10etik 23ra igo da eskaintza eta hileroko ikastaroetan aritu den pertsona kopurua 300etik 450era igo da.

Patronatuaren 1996ko aurrekontua 62 milioikoa izan zen eta horietatik Udalak 44 milioi jarri zituen. Aurtengo aurrekontua, berriz, 77 milioikoa da eta Udalak 41,6 milioi jarriko ditu. Isaac Loiolaren esanetan, "Patronatuak Udalarekiko duen dependentzia ekonomikoa gero eta txikiagoa da eta gure erronka dependentzia hori murriztea izango da".



J.M. Ulazia Gestio Eskolako zuzendaria, G. Garate alkatea, I. Loiola Haziendaburua eta Ramon Mujika Patronatuko zuzendaria inkestaren aurkezpenean.

AGENDA
<b>Futbola, Mintxetan</b>
<b>Larunbata, 13</b>
15:45 Pedrusko - Urki (2. erreg.)
17:30 Elgoibar - Real Unkin (0ho. juh.)
<b>Igandea, 14</b>
16:30 Elgoibar - Burumendi (1. juh.)
<b>Eskubaloia, Kiroldegian</b>
<b>Larunbata, 13</b>
16:00 Pneumax Elg. - Bidasoa (Kad. mut.)
17:30 Tecnomeca Elg. - Bidasoa (Jub. mut.)
19:00 Pagoaga Elg. - Legazpia (Jub. nes.)
<b>Futbitoia, Kiroldegian</b>
<b>Igandea, 14</b>
9:00 Menisco - Zelai F.T.
10:00 S. Pitxote - Elkarte Autoak
11:00 Trans Video - P.S.K.
12:00 S. Braga - Herminios

AGENDA
(Abenduak 13, larunbata, 5. jardunaldia)
<b>ARETO FUTBOLA</b>
■ Benjamin mut. (Mintxelan) □
9:30 Mendaro A- Ikas Bulls
10:30 Ikas Tximista - Ikas Bihurri
11:30 Pilar Lakasitos - Herri Otsuak
12:30 Pilar Bulls - Ikas Gorri
■ Benjamin nesk. (Mintsetan) ■
10:00 Pilar Txiki - Ikas Bizkor
11:00 Pilar Usoak Ikas Hartz
12:00 Ikas Baleak - Ikas Hartzadar
<b>SASKIBALOIA</b>
■ Alebin mutilak (Ikastolan) 11
9:00 Ikas Gol - Pilar Flash
9:45 Herri Boomerang Ikas Espabidubi
■ Alebin neskak (Ikastolan) ■
10:30 Herri Argi - Ikas Trumoi
11:15 Pilar Kas - Ikas Laino
12:00 Pilar Planet - Pilar Girls
<b>ESKUBALOIA</b>
■ mutilak (Kiroldegian) ■
9:45 Perraubokoak - Basati
10:30 Pialr Boys - Pilar Ajax
11:15 Ikas Bolilla - Ikas Otsoko
■ ilantil neskak (Kiroldegian) ■
9:00 Pilar Mix - Ikas Spanky

# BARREISI 5. ulau 4]a[ma uspElaan ahonLISPOn 23an

Zenbaki berezia eta erretratu zaharren liburua kaleratuko ditugu


1992ko abenduaren 24an argia ikusi zuen BARRENen zero zenbakiak. Bost urte pasatu dira ordutik eta ostiralero, elgoibartarren etxeetako buzoietara iritsi da, hutrik egin gabe. Dagoeneko 218 zenbaki atera ditugu. Bost urte egunero betetzen ez direnez, BARRENek bere urtebetetze eguna ganoraz ospatu nahi du. Abenduaren 23ko iluntzean, gaurdaino BARRENen argitaratu diren argazki zahar politenak biltzen dituen liburua, eta V. urteurreneko zenbaki berezia aurkeztuko dira herritarren aurrean Udal Areto Nagusian.

**B**ARRENeko lantaldeak esfortzu berezia egin du aurten BARRENen bosgarren urtebetetzea ospatzeko. Abenduaren 23ko iluntzean, BARREN, Elgoibarko Izarra, Udala eta erakunde laguntzaileetako ordezkarien partehartzearekin, herritarrengan pen-

tsatuz egin dugun erretratu zaharren liburua eta zenbaki berezia aurkeztuko ditugu. Erretratu zaharren liburua Elgoibar eta elgoibartarren artxibo grafikoak izan nahi du. 1992ko abendutik hasita 1997ko abendura bitartean astekarian argitara eman diren erretratu zaharren hautaketa egin ostean, politenak biltzea erabaki dugu. Maite Rementeria arduratu da liburuaren diseinuaz eta abenduaren 2letik aurrera salgai jarriko da herriko leku ezberdinetan 1.000 pta.ren truke.

219. zenbakiak, abenduaren 23koak hain zuzen, azken bost urte hauetan gure herrian gertatu diren gauzarik inportanteenak jasoko ditu eta baita herritarrek BARRENi buruz duten iritzia ere. Hortaz, datorren ostiralean, hilak 19, ez duzue BARRENik topatuko zuen buzoietan, abenduaren 23an baizik.

Ekitaldi hau publikoa izango denez, herritar guztiak zaudete gonbidatuta.



1992ko abenduaren 24an BARRENen 0. zenbaki argitaratu zen.

## Ricardo Gorriti, Bittor Zubiaurre eta Txomin IVujika 25 urte dultzaina jotzen

**25** urteren aldea dago esku-mako bi argazkien artean. Elgoibarko dultzaineroek duela 25 urte, 1972. urteko abenduaren 25ean jo zuten estreinakoz Elgoibarren. Ricardo Gorriti tanborrarekin eta Bittor Zubiaurre eta Txomin Mujika dultzainarekin, kalejiran atera ziren goizeko 9etan orduko alkatea zenari, Angel Ajubitari, baimena eskatu eta gero. Urte horretako uztailean hasi zen hirukote hau entsaiatzen Gasteizen erositako pare bat dultzaina kaxkarrekin eta Gerardo Garate "Katalo" zenak Sigman egindako tanborrarekin. Txomin Mujikak honako bitxikeria hau kontatu digu tanborra zela eta ez zela. "Itxuraz, Gorritik gaizki eman zion Katalori tanborran inguruan jartzen dan txapian sendoerian neurrirra, eta 0,8mm.kua ein biharrian, 2mm.kua ein zaban. Haura pi-

xua zakana tanborrak!"

Beste anekdota kuriosorik ere kontatu digu: abenduaren 25ean, lehen aldiz jotzera irten zirenean, jendeak ametsetan ote zegoen pentsatu zuen. Izan ere, ordura arte, San Bartolome jaietan bakarrik entzuten omen zen dultzaina eta oso arraroa izan zen Gabonetan dultzainaren soinua kaleetan entzutea.

Ordutik gauzak izugarri aldatu dira. 25 urte eta gero, Herriko Dultzaineroek hainbat saio eskaintzen dituzte urtean zchar: San Antonetan, Trinitateetan, San Bartolome jaietan, Haritz Dantzari Taldearekin eta herritik kanpo ere bai, Nafarroan batez ere. Honez gain, Dultzainero Gazteen Taldea ere badugu Elgoibarren, Koldo Galdona, Jon Zabala eta Gorka Rejilek osatua. Hauek duela bi urte eta erdi Trinitate jaietan jo zuten estreinakoz.




Goian, estreinako emanaldia 1972ko abenduaren 25ean. Behean, aurten ateratako argazkia. Bien artean 25 urteko aldea dago.



# Laiister sa

ABENDUAREN 21 etik AURRERA



E L G O I B A R

*E* RRETRATU ZAHARRAK

5 urteotan  
BARRENen atera diren  
erretratu zahar politenen  
**liburua.** 1.000,ta

**BARREN** NI.

J.P.11: URRENA

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak .....	461111
Txanda hartzeko ....	743354
Planning-a .....	742950
Alkoholiko Anonimoak ...	740385
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitalea ...	756264
Odoi Emailak .....	743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) . 902 10 12 10	
Taxi geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kuitura Zerbitzua .	742158
Mendaroko Udala ....	756100
Ongizate zerbitzua ..	741008
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .....	741626
Ki roldegia .....	744415
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
Mintxeta .....	744315
Parrokia .....	740842
Postetxea .....	741547
Gaztetxea .....	741357

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza .	740296
Zaharren ..	740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola .....	74 21 41
Herri Eskola .....	74 08 79
I.M.H .....	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre .....	74 02 67
Ezenarro (Meka) ..	74 44 80
Ikastola .....	74 44 41
Pilar Ikastetxea .....	74 13 31

### KONIUNIKABIDEAK

BARREN .....	74 41 12
El Diario Vasco .....	74 40 73
El Correo Español ..	74 10 82
Egin .....	1084 21
Zazpiki irraba .....	74 34 74

## 12 ostirala

18:30 ODOL  
ATERALDIA  
P. M. Urruzuno 8an

22:15 ZINE KLUBA  
"Un verano en la  
Goulette"

## 1 larun ata

15:45 BILBOKO  
MANIFESTAZIORAKO  
AUTOBUSA  
Irteera Plaza Handian  
Antolatzailea: HB

19:30-22:15 ZINEA  
"Full Monty"

## 14 igandea

10:30 HAUREN  
JAIOTZA LEHIAKETA  
Eliz arkupeetan

19:30-22:15 ZINEA  
"Full Monty"

## 1 asteleena

19:30-22:15 ZINEA  
"Full Monty"

## 18 asteartea

10:00 IKUS-  
ENTZUNEZKO SAIOA  
Izenburua: "Argentinako  
Patagonia"  
Antolatzailea: DEBABE  
euskaltegia  
Kultur Etxean

19:00 HITZALDIA  
Gaia: Elikadura  
Hizlaria: Marta Agirre  
Jubilatu Etxean  
Antolatzailea: Haizea  
Emakume Taldea

## 17 asteazkena

17:00 SUKALDARITZA  
KLASE PRAKTIKOA  
Jubilatu Etxean  
Antolatzailea: Haizea  
Emakume Taldea

## 18 osteguna

19:00 HITZALDIA  
Gaia: Elikadura  
Hizlaria: Marta Agirre  
Jubilatu Etxean  
Antolatzailea: Haizea  
Emakume Taldea

22:15 ZINE KLUBA  
"Todos dicen te quiero"

## 19 ostirala

19:00 EGURREZKO  
TAILA ERAKUSKETA  
Egilea: Braulio Buenetxea  
Kultur Etxean  
Urtarrilaren 6ra arte

22:15 ZINE KLUBA  
"Todos dicen te quiero"

## 1 larun ata

19:30-22:15 ZINEA  
"La boda de mi mejor  
amigo"

# 11 NE A



Zuzendaria: Peter Cattaneo.  
Antzezleak: Robert Carlyle, Tom  
Wilkinson, Mark Addy.

## Full Monty

Bretainia Handiko hiri industrial batean dago kokatua istoria. Kriaren ostean tailerrak ixten hasten dira eta herritarrak kale gorrian geratzen dira. Bost lagunek, langabeziatik irteteko asmotan, nolabait dirua atera nahi dutenez, strip-tease talde bat sortzen dute. Barre egiteko pelikula da, ironia puntu garratz batekin.

• 111 ■ ■ RER

• • 111 • 11 ■ 111 ■ RER • ■ RI • E



# 21 igandea

**12:30 MUSIKA**  
**BANDAREN**  
**KONTZERTUA**  
Herriko Antzokian

**16:30-19:30-22:15**  
**ZINEA**  
"La boda de mi mejor  
amigo"

**18:00 OSKORRIren**  
**IKUSKIZUNA**  
"Marijane kanta zan"  
Kiroldegian  
Antolatzaileak: Udala eta  
Elgoibarko Izarra

## asteleena

**19:30-22:15 ZINEA**  
"La boda de mi mejor  
amigo"

# 23 asteartea

**20:00 BARRENen V**  
**URTEURRENA**  
Udal Areto Nagusian  
Antolatzaileak:  
Elgoibarko Izarra eta  
BARREN astekaria

## • Bandaren kontzertua Eibarren hilaren 14an, eta Elgoibarren, hilaren 21ean

Jose Antonio Osorok zuzentzen duen Udal Musika Bandak Eibarren joko du domekan, hilak 14. Goizeko 11:00etan kalejira eta 12:15ean kontzertua Udaletxeko arkupeetan. Bost obra joko dituzte: "Desde mi rinc6n", "Bändietenstreken", "Rapsodia Vasca". "Los burladores" eta "Bands around the

world". Datorren domekan, hilak 21, eguerdiko 12:30ean Herriko Antzokian kontzertua eskainiko du Musika Bandak. Eibarren joko duten egitarau bera izango da azken bi piezak izan ezik. Horien ordean, "Bandas alrededor del mundo" eta "A Christmas dance" musika piezak joko dituzte.



## • Gabonak 97 AtxutxiamaiKa Begirale Taldearekin

Elgoibarko Izarrako AtxutxiamaiKa Begirale Taldeak Gabonak 97 egitasmoa prestatu du 1., 2., 3. eta 4. mailako haurrei zuzendua. Gabonetan egingo diren ekintzen artean honako hauek daude: Olentzeroren kalejira hilaren 24an, jolasen super-maratoia hilaren 29an, dantza jaialdia hilaren 30ean eta Eibarko parkera irteera hilaren 31n. 1.000 pta.ko prezioa dauka egitasmoak eta izena emateko epea hilaren 16ra arte luzatuko da (Ubitarte 4, behea. 74 16 26).

## • "Marijane kanta zan", Oskorrien ikuskizuna

Datorren domekan, hilak 21, arratsaldeko 18:00etan, Oskorri eta Kukubiltxoren azken ikuskizuna izango da Kiroldegian Elgoibarko Izarra eta Udalaren eskutik. Haur zein nagusiei zuzendutako abesti eta hankaluzeen ikuskizun honetarako sarrerak aurrez eskura daitezke Elgoibarko Izarraren egoitzan (Ubitarte 4, behea) edo Kultur Etxean, abenduaren 15etik 19ra bitartean. 14 urtetik beherakoentzako sarreraren zenbatekoa 500 pta.koa izango da eta nagusientzat 800 pta.

## FAR MAZIAK

- Egunez Gaeuz
- 13 Yudego Yudego**
  - 14 Yudego Yudego**
  - 15 Yudego Yudego**
  - 16 Etxeberria Etxeberria**  
(Errosario kalean)
  - 17 Bidasolo Anduaga**
  - 18 Etxeberria Zabaleta**  
(Errosario)
  - 19 Etxeberria Etxeberria**  
(Santa Ana kalean)
  - 20 Bidasolo Bidasolo**
  - 21 Bidasolo Bidasolo**
  - 22 Yudego Escala**
  - 23 Yudego Yudego**

ESCALA: **Rekalde, 1**  
**Soraluze. Tel: 75 16 38**  
ANDUAGA: **Mendarozabal, 1**  
**Garagarza. Tel: 75 61 42**  
ZABALETA: **Kaiebarren, 9**  
**Soraluze. Tel: 75 13 84**

## OKINDEGIA

- 14 Igandea Idarra, ga**
- 21 laandea Dotia Mercedes**

INREERT1111

**ONGARRI**  
zine kluba



**Zuzendaria: Woody Allen**  
AntzezelaK: A. Alda, W. Allen, D. Barrymore.

## Todos dicen te quiero

Ezkontzerakoan zalantzan dauden bikote gazteak, gurasoak ezkondu nahi dituzten alabak, Sena ibaiaren alboan ezkondu eta egon ziren garaia gogora ekartzen duten bikote bananduak... Woody Allenen koktel ezagun baten aurrean gaude. Ez da pelikula musikal baina aktoreek abestu eta dantza egiten dute. Hau dena neurosi dosi handi batekin nahastuta. Allenen ohiko pelikulen haritik.

## Bestelakoak

- "Solidaritategaren denda" rako butanozko estufa behar du. ar 74 28 22 (Rosa)
- Lepoko zapi bat galdu dut (bi ahate ditu). fr 74 06 17 (Saritu egingo da).
- Pilarreko Amabirjinaren irudia duen domina aurkitu dut. ir 74 13 37
- Begi urdindun katu txuria aurkitu dut, Lau hilabete inguru ditu. tr 20 20 18

## Partikularrak

- Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. 12 74 41 16/ 907 15 30 62
- Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ar 74 12 05 (gauzez)
- Injineru tekniko industrialak matematika, fisika, kimika, marrazketa eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditu (gaztele-raz). ar 74 22 29 (Begoña)
- Alemanezko klase partikularrak ematen ditut. as 74 00 98
- Marrazketa tekniko eta diedri-ko klaseak hartuko nituzke euskaraz. a 74 27 78 (Sara)
- Lizentziatuak fisika eta kimika-ko klase partikularrak ernango lituzke. Maila guztiak. tr 74 43 98/74 08 09 (Marian)
- Marrazketa tekniko eta diedri-ko klaseak ematen dira. tr 74 43 98 (Iñaki)

## Garajeak

- Garaje itxia alokatzen da Pista Beltzean. Merke. tr 74 03 81
- Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. as: 74 13 82
- Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. s 74 19 70
- Garaje marraduna alokatzen da pista beltzean. 74 00 70 (gauzez)
- Garaje itxia alokatzen da Pista Beltzean. tr 74 03 81
- Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. a 74 27 89

## Etxebizitzak

- Etxea salgai Urasandin. 90 m2, 3 logela, sukalde, 2 komun, ganbara eta 3 terratzatxo. Koketoa. ar 75 52 15
- Pisua alokatzen da San Barto me 14-3anaz 74 22 56 *itua*
- Buhardilla bat saltzen da Pedro Mugurnzan. Si gela, sala, sukalde, bainugela eta despentsa ditu. ar 74 14 23 (eguerdiko 12:00etatik 14:00etara).
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Berritua dago. a 929 43 24 22 (Arratsaldeko 6etatik aurrera).
- Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrora. Berritua, s 908 57 95 89
- Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariek, tr 74 00 65

## Salerosketak

- **SALDU.**
- Opel Calibra 2.0 16 V. 150 cv saltzen da. s 74 22 78
- Eskiak saltzen ditut. Dymastar, 1,85 m.ko altuera. Tyrolia 490 loturekin. Nordica N995 botak, 42-43 zenbakia. Egoera onean. ar 74 18 55 (gauzez)
- Eskiak eta fijazioak salgai. Berritua, erabili gabe. Prezioa: 20.000 pta, s 75 50 51
- Kerosenozko estufa salgai. Urtebete du. sa 74 09 44
- Bi hilabeteko katakurne pertsak, gris kolorekoak, salgai. ar 74 37 21 (M. Angeles)
- Motozerra saltzen da, Husquarna 45. Nahiko berria eta merkea. 7s 74 11 29
- Motor bat salgai. Honda CR'94 250. Egoera onean dago, oso gutxi erabilia. tr 74 42 32 (Iban)
- Renault Expres furgoneta diesela salgai. tr 74 02 09 (gauzez)

### • EROSI\*

- Manikiak behar ditut eskapare-rako. s 58 09 18 (Bego)
- Hariak gordetzeko armarua, botoiak forratzeko makina eta kaja erregistradora erosiko nituzke. tr 58 09 18 (Bego).
- Fero-Sette markako trikitia erosiko nuke. a 19 18 91 (gauzez)
- Txabola erosiko nuke Elgoibarren edo inguruan. tr 74 37 87

## Lana

### • ESKAINTZA •

- 18-25 urte hitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. tr 74 45 87
- Londresen bizi den Elgoiharko familia hatek neska euskalduna behar du umeak zaindu eta etzeko lan egiteko. ar 74 08 17
- Neska euskalduna behar da jate-txean lan egiteko. Esperientziarekin. tr 74 37 22 (Goizeko 9etatik 1 tetara)
- Emakumea behar da barrarako eta sukalderako. a 74 37 60

### • ESKAERA •

- Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta errota josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. a 74 21 44 (Ana Isabel)
- Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. a 74 43 31 (Agurtzane)
- Eskopetero-armedo eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, matzaile edo pulidore lanak egiteko a 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. a 17 47 70
- Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsero edo enkofratzalle lanak egiteko. a 17 47 70
- Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. a 74 15 09 (Victoria)
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak eta zaharrak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldeko lanak egiten a 74 37 22 (21:00etatik 23etara)
- Lokal handiak garbitzeko emakumea eskaintzen da. Esperientzia daukat. s 74 39 75 (Arrate)

## Agurrak

- Zorionak Aitana De La Torreri bihar, larunbata, urtebete egingo duelako. Familia osoaren partez.
- Zorionak Luis Santamariari hilaren 1111 urteak bete zituelako. Marian eta Maite Linaresen partez.
- Zorionak Jakob Bilbatuari astearte, hilak 9, urteak egin zituelako. Ikastolako 6A gelako partez.
- Zorionak Asier Friasi gaur, hilak 12, 9 urte bete zituelako. Endikaren partez.

• Zorionak Cynthia Paziniñori hiluen 7an urteak bete zituelako. Elgoiharko lagunaren partez.

• Zorionak Befiat "Guti"ri gaur urteak bete zituelako, Mirentxuk hezala. ikastolako 6. mailako partez. Aupa Xoletel

• Zorionak Cipriano Salegiri hilaren 9an urteak bete zituelako. Senide guztien partez egun on bat pasa dezala.



• Zorionak Cristina Teixeira eta Aurelio Garcari hilaren 15ean eta 9an urteak betetzen dituztelako. Guraso eta ahizparen, seme eta iloben partez,



• Zorionak Itxaso Rodriguez astelehen, hilak 15, 2 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizpa Joanaren partez.

Zorionak eta rrusu haundi bat aittitza Jose Mari eta osaba Olu eta Titoren partez.

• Zorionak Julien Arocenari gaur 15 urte bete zituelako. Gurasoen, Aitorren, Izaskunen, Anderren eta Elgoibarko familia




osoaren partez,



• Super zorionak Kohlo Al-dalurri igandean, hilak 14, 8 urte beteko dituelako. Guraso, arreba Itziar, osaba eta aitona-


amonaren partez.



• Zorionak Miren Belzari gaur, abenduak 12, 11 urte bete zituelako. Guraso, ahizpa eta aittita-amamaren partez, Zorionak, baita ere, 6. mailako guztien partez, bereziki "Azalor"ren partez. Lehen bezain eder eta lirain jarrai dezala mutilen artean duen fama galduta gabe.



• Zorionak Urko Sanchez hilaren 17an 12 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez egun alaia igaro dezala.



KALITATEKO  
EUSKAL



## Euskal Herrian okela ona dugu

EUSKO LABEL



KALITATEA



EUFIOPAHO ELKARTEAREN  
PARTAIDETZARERKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

*Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsuinatzadeari*

### **KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA**

*Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da*

#### AZPEITIA

> MATXIN ETA KORTZU HARATEGIA  
HARZUBIA IBILBIDEA, 26

> CARNICERIA ZABALA  
BUZTINZURIKO ERREBALA, 8

• EDUARDO HARATEGIA  
ERDIKALE, S/N

> BELOKI HARATEGIA  
JOXE ARTETXE, 21

> BALENTIN ODRIUZOLA HARATEGIA  
ARANA, 14

• CARNICERIA SAN SEBASTIAN  
FORU IBILBIDEA, 4

#### AZKOITIA

> BELOKI HARATEGIA  
PLAZA BERRI, 75

#### ELGOIBAR

> ARMUETA HARATEGIA  
SAN BART OLOME, 16

- CARNICERIA ANTONIO L. BENITO  
URASANDI, 26

- CARNICERIA-CHARCUTERIA MARI  
SAN FRANCISCO, 1

- ZIARDA HARATEGIA  
ROSARIO, 10

- GARAY HARATEGIA  
SAN FRANCISCO, 9

#### DEBA

- GORA-BEHERA HARATEGIA-AUTOSERVICIO  
POLIGONO AGERRETXE

- ANTXON HARATEGI-URDAITEGIA  
LERTXUNDI, 8

- ARRIZABALAGA HARATEGIA  
PLAZA ZAHARRA, 2

- AFITOLA HARATEGIA  
ASTILLERO, 3

#### MUTRIKU

- ARRIZABALAGA HARATEGIA  
ERDIKOKALE, 26

- EROSLE DENDABERRI  
SAN AGUSTIN, 10

colaheldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur gorri hateg  
saikapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKCI HARATEGI ESPEZIALIZATUEN



# Euskal Herriak irtenbideak

demokrazia  
askatasuna  
bakea

Alternatiba Demokratikoa

## behar ditu

### MANIFESTALDI NAZIONALA

ABENDUAK

# DENOK BILBORA

7:00etan, Aita Donosti plazan

LARUNBATA

ABENDUAK

# GREBARA

ASTELEHENA

HERRI BATASUNA

Bakea behar dugu

1111 lrd  
la 1111